

San Telmok Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko du asteburuan

Maiatzaren 18an eta 19an musika eta dantza ekitaldiak izango dira, doako sarrera museora eta irekiera berezia larunbatean

Maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko eguna ospatzen da, aurten, *Museoak kultura ardatz gisa: tradizioaren etorkizuna* lelopean. Asmoa da azpimarratzea museoek aktore aktibo modura duten paper berriak tokian tokiko komunitateetan.

Egun horrekin bat egiteko San Telmo Museoak ekimen bereziak antolatu ditu. Hala, maiatzaren 18an (larunbata) nola maiatzaren 19an (igandea) museorako sarrera doakoa izango da publiko guztientzat, eta larunbatean 22:00ak arte egongo da erakusketak bisitatzeko aukera.

Gainera, Francisco Escudero Kontserbatorioaren eta Udal Musika eta Dantza Eskolaren lankidetzarekin, musikaz eta dantzaz jantziko da San Telmo asteburuan:

Maiatzak 18, 20:00: Kantu errezitaldia

David De Oliveira, tenorea

Jon Imanol Etxabe, baritonoa

Itziar Beitia, pianojolea

Abeslari gonbidatua: Ainhoa López de Munain, sopranoa

Programa: Saint-Saëns, Haendel, Fauré, Hahn, Donizetti, Mozart, Guridi, Ortega, Brahms, Schubert, Vives, Sorozabal, Zapiain.

Gainera, **egunean zehar** musika emanaldi txikiak izango dira museoan zehar.

Hala kantu errezitaldia nola musika emanaldiak Francisco Escudero Musika Kontserbatorioarekin elkarlanean antolatu ditu museoak.

Maiatzak 19, 12:00: Dantza emanaldia

Euskal dantzak, eta ballet garaikidea eta klasikoa eskainiko dituzte Musika eta Dantza Eskolako Eskolako ikasleek museoko elizan.

Heriotza. Ante la muerte, Arzak bere saltsan eta erakusketa iraunkorra

Museoen Nazioarteko Eguneko asteburuan erakusketa iraunkorraz gain, *Heriotza. Ante la muerte* eta *Arzak bere saltsan* aldi baterako erakusketak bisitatzeko aukera egongo da.

Erakusketa iraunkorrean euskal gizartearen bilakaera ezagutzeko aukera dago, Historiaurretik XX. mendeko 80ko hamarkadara arte. Pieza berriena *Euskal artzaintza atzo eta gaur* ikus-entzunezkoa da (20 min), gaur egun artzaintzaz bizi diren pertsonen bizimodua erakusten duena: transhumantzia,

gaztagintza, ilea moztea... bai eta bere lanean erabiltzen dituzten tresnak ere. Ikus-entzunezkoa baserriaren aretoan dago, "Tradizioak bizirik dirau" atalean.

Bestalde, *Heriotza. Ante la muerte* erakusketan heriotzaren gaiari heldu dio museoak. Museoak berak eta José Ángel Achón Deustuko katedradunak komisariatu dute eta gai honen inguruko alderdi ezberdinak jorratzen ditu: heriotzari beldurra, errituak, zentzua bilatzea, heriotzatik itzultzea eta hilezkortasunaren ametsa.

Horretarako, museo eta bilduma ezberdinetatik datozen pieza mota askotarikoak, kultura ezberdinetakoak, biltzen ditu erakusketak, besteak beste, artelanak, errituekin lotutakoak objektuak, dokumentuak eta argazkiak.

Azkenik, *Arzak bere saltsan* erakusketak, Laborategian dagoenak, ezagutzera ematen ditu sukaldari bat, Arzak; mugimendu bat, Euskal Sukaldaritzaren Berria; mahai asko, Alto Vinagreko jatetxeak 1897tik, eta idazle baten gogoeta, Hasier Etxeberria. Arzakeko 12 mahaik historian zeharreko ibilbide bat osatzen dute; beti abangoardiakoa izan den jatetxe baten, sukaldari baten, Donostiaren eta gure herriaren bilakaeran zeharreko ibilbide bat.

San Telmo celebra el Día Internacional de los Museos este fin de semana

El 18 y 19 de mayo habrá actuaciones musicales y de danza, entrada gratuita al museo y apertura especial el sábado

El 18 de mayo se celebra el Día Internacional de los Museos, cuyo lema este año es *Los museos como ejes culturales: El futuro de la tradición*. El objetivo es destacar los nuevos papeles que desempeñan los museos como actores activos en sus comunidades.

Sumándose a la celebración San Telmo organizará actividades especiales. Así, el 18 de mayo (sábado) y el 19 de mayo (domingo) la entrada al museo será gratuita para todos los públicos, y el sábado habrá apertura especial, ya que se podrá visitar las exposiciones hasta las 22:00.

Además, San Telmo se llenará de música y danza gracias a la colaboración con el Conservatorio Francisco Escudero y la Escuela Municipal de Música y Danza del Ayuntamiento de San Sebastián:

18 de mayo, 20:00: Recital de canto

David De Oliveira, tenor

Jon Imanol Etxabe, barítono

Itziar Beitia, pianista

Cantante invitada: Ainhoa López de Munain, soprano

Programa: Saint-Saëns, Haendel, Fauré, Hahn, Donizetti, Mozart, Guridi, Ortega, Brahms, Schubert, Vives, Sorozabal, Zapirain.

Además, **durante el día**, habrá actuaciones musicales de pequeño formato a lo largo del museo.

Tanto el recital como las actuaciones musicales han sido organizadas en colaboración con el Conservatorio Francisco Escudero.

19 de mayo, 12:00: Actuación de danza

En la iglesia, alumnas y alumnos de la Escuela Municipal de Música y Danza ofrecerán un espectáculo de ballet clásico y contemporáneo, y euskal dantzak.

Heriotza. Ante la muerte, Arzak bere saltsan, y exposición permanente

Durante los días de celebración del Día Internacional de los Museos, además de la exposición permanente, también se podrán visitar las exposiciones temporales *Heriotza. Ante la muerte y Arzak bere saltsan*.

La exposición permanente ofrece la oportunidad de conocer el devenir de la sociedad vasca, desde la Prehistoria hasta la década de los 80 del siglo XX. La incorporación más reciente a la misma es el audiovisual *Pastoreo Vasco ayer y hoy* (20 min.), donde se muestra el modo de vida de las personas que hoy se dedican al pastoreo: la trashumancia, la elaboración del queso, el esquila... así como las herramientas que utilizan para realizar su trabajo. La pieza se proyecta en la sala del caserío, en la sección "La tradición pervive".

Por otra parte, en la exposición *Heriotza. Ante la muerte* San Telmo aborda el tema de la muerte. Esta muestra, comisariada por el propio museo y el catedrático de Deusto J.A. Achón, trata cinco aspectos relacionados con la muerte: el miedo ante la muerte, los ritos, la búsqueda de sentido, volver de la muerte y el sueño de la inmortalidad.

Para ello, presenta una selección de piezas que proceden de diversos museos y colecciones, así como de diferentes culturas, entre ellas: obras artísticas, objetos relacionados con los rituales, documentos y fotografías.

Por último, la exposición *Arzak bere saltsan* da a conocer la historia de un cocinero, Arzak; un movimiento, la Nueva Cocina Vasca; muchas mesas, las del restaurante del Alto Vinagres desde 1897; y las reflexiones de un escritor, Hasier Etxeberria. A través de 12 mesas de Arzak se realiza un recorrido por la historia, por la evolución de un restaurante siempre en la vanguardia, de un cocinero, de Donostia y de nuestro pueblo